

TREBAKUNTZA 2016/01: SOZIETATE ANONIMOA (SA)

OHARRA: asteriskoz eta kurtsibaz idatzitako esaldiak gaizki daude, eta gainerakoak zuzen.

OHIKO AKATSAK

1. * **Lehor Eraikuntzak, S.A.** enpresak etekin handiak izan ditu aurtan.
2. * **IZENPE, S.A.** sozietatea Euskadiko administrazio publikoentzat sinadura elektronikorako soluzioen garapen uniforme bideratzeko tresna da.
3. * Bizkaiko herri txiki batean dauka egoitza **Urregarai, S.A.** enpresak.
4. * **Bizkargain, S.A. enpresako** langileak errepide ondoan lanean zebiltzala gertatu zen ezbeharra.

AZALPENA

Hona hemen EJko IZOren (Itzultzaile Zerbitzu Ofiziala) azalpena eta erabakia:

Sozietate anonimoen eta antzekoen idazkerak bi arazo planteatzen ditu: bata, laburdura (S.A.) ala sigla (SA) ote den, eta bigarrena, tartean koma behar duen ala ez:

a) *Industrias Garibai, S.A.*

b) *Industrias Garibai SA*

SA siglak abantaila handia du S.A. laburduraren aldean: deklinatzeko arazorik ez du; gainera, gaztelaniaz ere zilegi da SA siglatzat hartzea, eta azkenik, adostasun handia dago beraren alde erreferentziazko erabiltzaileengan (Elhuyar, Berria, IVAP...).

U d a l e r r i E u s k a l d u n e n M a n k o m u n i t a t e a

www.uema.eus

Donibane enparantza 1, 1.a
48380 Aulesti
Bizkaia
94-627.91.95

Done Petri 14, behea
20180 Oiartzun
Gipuzkoa
943-26.03.72

Enparan kalea 1, 2.a Sindikatu zaharra
20.734 Azpeitia
Gipuzkoa
943-81.66.99

Komak, euskaraz, guztiz tratatzen du ulergarritasuna; batez ere, sintagma deklinatu behar denean. Beraz, ez dugu komarik jarriko: “*Industrias Garibai SAren ordezkariak dimisioa eman du*”.

Erabakia: SA idatziko dugu, siglatzat hartuta, eta ez S.A. Sozietate-izenaren eta siglaren artean ez da komarik idatziko.

ZUZENKETAK

1. **Lehor Eraikuntzak SA** enpresak etekin handiak izan ditu aurren.
2. **IZENPE SA** sozietatea Euskadiko administrazio publikoentzat sinadura elektronikorako soluzioen garapen uniforme bideratzeko tresna da.
3. Bizkaiko herri txiki batean dauka egoitza **Urregarai SA** enpresak.
4. **Bizkargain SA enpresako** langileak errepide ondoan lanean zebiltzala gertatu zen ezbeharra.

Azalpenotatik zerbait ulertu ez baduzu, edo gehiago sakontzeko ariketarik nahi baduzu, jarri harremanetan UEMAko teknikariarekin edo zure udaleko euskara teknikariarekin:

Telefonoz: 94-6279195 (Iratxe)

Posta elektronikoz: iratxe.udalak@uema.eus (Iratxe)

Hurrengora arte!

Udalerrri Euskaldunen Mankomunitatea

www.uema.eus

Donibane enparantza 1, 1.a
48380 Aulesti
Bizkaia
94-627.91.95

Done Petri 14, behea
20180 Oiartzun
Gipuzkoa
943-26.03.72

Enparan kalea 1, 2.a Sindikatu zaharra
20.734 Azpeitia
Gipuzkoa
943-81.66.99